


LATINOAMERIKAR BIZTANLERIA EAEN

Immigrazioaren bosgarren panoramika hau euskal udalerrietan erroldatutako latinoamerikar biztanleriari buruzkoa da. Nazionalitate-talde guztien artean, latinoamerikarra da EAEko ugariena. Horien kopuruak nabarmen egin zuen gora 2001etik aurrera, eta 2005eko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatutako immigrante atzerritar guztien %48,1 ziren. Latinoamerikar immigranteen erdiak baino gehiago Bizkaian bizi dira. Hiru lurralde historikoetako nazionalitate garrantzitsuenak kolonbiarra eta ekuadortarra dira; gainera, gehien-gehienak emakumezkoak dira. Azterketa askok berretsi dute Latinoamerikako immigranteen artean emakumeak direla nagusi eta emakumeen agerpen hori ez da familia berriro batzearen ondorio —beste nazionalitate-talde batzuetan bezala—, emakumeak lan-merkatuan sartzearen ondorio baizik.

1. Immigranteen bilakaera, EAEko gune geografikoen arabera

1. grafikoa
Atzerritarren biztanleriaren bilakaera EAEn, nazionalitate-talde handien arabera. 1998-2005



Iturria: INEren datuetan oinarritua.


2005eko urtarrilaren 1eko erroldari erreparatu gero, 1998 eta 2005 urteen artean latinoamerikarren biztanleria izugarri handitu dela ikus daiteke. Azken zazpi urteetan haien biztanleria hamarrez biderkatu da. 1998. urtean, 3.000 baino zertxobait gehiago baziren, eta 2005. urtean, berriz, 35.000 baino gehiago. Beste nazionalitate-taldeen ez dute horrelako igoerarik izan, guztien biztanle-kopurua handitu den arren, ez baitute latinoamerikarren erritmorik lortu. EAEn erroldatutako latinoamerikarren kopuruaren igoera esponentziala dela esan daiteke, batez ere 2001. urtetik aurrerakoa.

Igoera hori EAEn erroldatutako immigranteen biztanleria osoaren pisu erlatiboan islatu da. 1998. urtean, atzerritar guztien %22,75 zen, eta 2005. urtean %48,1. Beraz, EAEn bizi diren bi immigrantetik ia bat latinoamerikarra da jatorriz.

2. Latinoamerikarren banaketa EAEn

Bizkaiko lurralde historikoan du pisurik handiena latinoamerikar biztanleriak: lurralde horretan erroldatutako atzerritarren erdiak baino gehiago latinoamerikarrak dira. Araban eta Gipuzkoan, erroldatutako atzerritarren hamarretik lau dira, gutxi gorabehera.

2. grafikoa
Herrialde bakoitzean erroldatutako latinoamerikar biztanleriaren proportzioa immigrante guztiekiko. 2003-2005



Iturria: INEren datuetan oinarritua.

1. taula. Erroldan sartutako latinoamerikarren biztanleria. EAE eta lurralde historikoak. 2003-2005.

	2003				2004				2005			
	Latinoam. kopurua	Latinoam. guztiekiko %	Im. kop. guztia	Immigr. guztiekiko %	Latinoam. kopurua	Latinoam. guztiekiko %	Im. kop. guztia	Immigr. guztiekiko %	Latinoam. kopurua	Latinoam. guztiekiko %	Im. kop. guztia	Immigr. guztiekiko %
EAE	22.657	100	49.231	46,0	28.237	100	59.166	47,7	35.054	100	72.767	48,1
Araba	4.191	18,5	10.445	40,1	4.854	17,2	12.058	40,2	6.227	17,7	15.026	41,4
Gipuzkoa	5.969	26,3	14.878	40,1	7.861	27,8	18.232	43,1	9.485	27,0	21.537	44,0
Bizkaia	12.497	55,2	23.908	52,3	15.522	55,0	28.876	53,7	19.342	55,2	36.204	53,4


Iturria: INEren datuetan oinarritua.

Latinoamerikar biztanleriaren zatirik handiena, erdia baino gehiago (%55), Bizkaian bizi da. Araban bizi da kolektibo horren ehunekorik txikiena, %18 gutxi gorabehera. Gainerakoa, %27a, Gipuzkoan bizi da.

2003. urteaz geroztik, lurralde historikoko immigrante guztiekiko latinoamerikarren ehunekoa apur bat igo da Araban, Gipuzkoan eta EAEn, eta %0,3 jaitسي da Bizkaian.

Eskualdekako latinoamerikar biztanleriaren banaketari dagokionez, Bilbo Handia da Latinoamerikako pertsona gehien dituen eskualdea; ondoren, Arabako Lautada dago, eta, gero, Donostialdea. Izan ere, eskualde horietan daude herrialde-etako hiriburuak.

3. grafikoa
Latinoamerikarren banaketaren bilakaera EAeko lurralde historikoetan. 2003-2005



Iturria: INEren datuetan oinarritua.

2. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa, eskualdeka. 2003-2005.

	2003			2004			2003-2004	
	Kopurua	EAE osoarekiko %	LHrekiko %	Kopurua	EAE osoarekiko %	LHrekiko %	Aldea (%)	
Araba	Kantauri Arabarra	107	0,47	2,55	158	0,56	3,26	47,60
	Gorbeibarrena	65	0,29	1,55	67	0,23	1,38	3,07
	Arabako Lautada	3.866	17,06	92,25	4.453	15,77	91,74	15,18
	Arabako Mendialdea	34	0,15	0,81	50	0,17	1,03	47,05
	Arabako Errioxa	77	0,34	1,84	95	0,33	1,96	23,30
	Arabako Ibarrek	42	0,19	1,00	31	0,10	0,64	-26,19
	Arabako guztizkoa	4.191	18,50	100	4.854	17,19	100	15,81
Gipuzkoa	Donostialdea	3.237	14,29	54,23	4.281	15,16	54,46	32,25
	Goierri	382	1,69	6,40	505	1,78	6,42	32,19
	Tolosaldea	269	1,19	4,51	338	1,19	4,30	25,65
	Urola Kosta	532	2,35	8,91	680	2,40	8,65	27,81
	Debagoiena	360	1,59	6,03	465	1,64	5,92	29,16
	Bidasoa Behera	781	3,45	13,08	996	3,52	12,67	27,52
	Debabarrena	408	1,80	6,84	596	2,11	7,58	46,07
Gipuzkoako guztizkoa	5.969	26,35	100	7.861	27,84	100	31,69	
Bizkaia	Arratia-Nerbioi	178	0,79	1,42	246	0,87	1,58	38,20
	Durangaldea	563	2,48	4,51	792	2,58	4,70	29,48
	Enkarterri	202	0,89	1,62	236	0,83	1,52	16,83
	Busturialdea	328	1,45	2,62	432	1,52	2,78	31,70
	Bilbo Handia	10.498	46,33	84,00	12.925	45,77	83,27	23,11
	Lea-Artibai	145	0,64	1,16	187	0,66	1,20	28,96
	Uribe-Butroe	583	2,57	4,67	767	2,71	4,94	31,56
Bizkaiko guztizkoa	12.497	55,16	100	15.522	54,97	100	24,20	
EAeko guztizkoa	22.657	100	—	28.237	100	—	24,60	

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

Gainerako nazionalitateen eta nazionalitate-taldeen artean ere, herrialdeetako hiriburuetan daude gehienak.


Eskualde guztietan bolumenak gora egin du, Arabako Ibarretan izan ezik. Izan ere, hor latinoamerikar biztanleriaren kopurua apur bat txikituta da.

Dena den, igoera ez da berdina izan eskualde guztietan. Batzuetan, neurrizkoa izan da (%20 baino txikiagoa), eta gainerakoetan, handia (%20 baino handiagoa).

Kantauri Arabarra, Arabako Mendialdea eta Debabarrena nabarmentzen dira, %45etik gorako igoera izan baitute.

4. grafikoa


EAeko eskualdeak, latinoamerikar biztanleriaren bolumenaren arabera. 2004 urtea.



Iturria: INEren datuetan oinarritua.

5. grafikoa

Latinoamerikar biztanleriaren igoera ehunekotan EAeko eskualdeetan, 2003an eta 2004an.



Iturria: INEren datuetan oinarritua.

3. Banaketa nazionalitateen arabera eta bilakaera

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

EAEko bi nazionalitate nagusiak Kolonbia eta Ekuador dira. 2005. urtearen hasieran, Boliviarrak (%9,9) zeuden hirugarren lekuan. 2003. urteko datuekin alderatuta, 2005ean ho-

3. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa EAEn, nazionalitatearen arabera. 2003-2005.

2003			2004			2005		
Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%
Kolonbia	8.473	37,4	Kolonbia	9.044	32,0	Kolonbia	10.208	29,1
Ekuador	4.862	21,5	Ekuador	7.038	24,9	Ekuador	7.614	21,7
Brasil	2.114	9,3	Argentina	2.329	8,2	Bolivia	3.483	9,9
Argentina	1.780	7,9	Brasil	2.269	8,0	Brasil	3.061	8,7
Kuba	1.299	5,7	Bolivia	1.505	5,3	Argentina	2.827	8,1
Venezuela	763	3,4	Kuba	1.366	4,8	Kuba	1.496	4,3
Dominikar Errep.	719	3,2	Venezuela	963	3,4	Venezuela	1.242	3,5
Peru	659	2,9	Peru	842	3,0	Peru	1.193	3,4
Mexiko	492	2,2	Dominikar Errep.	814	2,9	Dominikar Errep.	1.025	2,9
Txile	482	2,1	Txile	564	2,0	Txile	726	2,1
Bolivia	428	1,9	Mexiko	556	2,0	Mexiko	637	1,8
Beste batzuk	586	2,6	Beste batzuk	947	3,4	Beste batzuk	1.542	4,4
Guztira	22.657	100	Guztira	28.237	100	Guztira	35.054	100

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

4. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa Araban, nazionalitatearen arabera. 2003-2005.

2003			2004			2005		
Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%
Kolonbia	1.575	37,6	Kolonbia	1.718	35,4	Kolonbia	2.118	34,0
Ekuador	797	19,0	Ekuador	1.097	22,6	Ekuador	1.213	19,5
Brasil	712	17,0	Brasil	576	11,9	Brasil	785	12,6
Argentina	264	6,3	Argentina	331	6,8	Argentina	419	6,7
Kuba	221	5,3	Kuba	233	4,8	Kuba	263	4,2
Dominikar Errep.	143	3,4	Dominikar Errep.	170	3,5	Dominikar Errep.	239	3,8
Venezuela	120	2,9	Venezuela	151	3,1	Peru	224	3,6
Txile	93	2,2	Peru	129	2,7	Venezuela	206	3,3
Peru	88	2,1	Txile	111	2,3	Bolivia	169	2,7
Mexiko	46	1,1	Bolivia	92	1,9	Txile	166	2,7
Bolivia	39	0,9	Mexiko	58	1,2	Mexiko	73	1,2
Beste batzuk	93	2,2	Beste batzuk	188	3,8	Beste batzuk	352	5,7
Guztira	4.191	100	Guztira	4.854	100	Guztira	6.227	100


Iturria: INEren datuetan oinarritua.

5. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa Bizkaian, nazionalitatearen arabera. 2003-2005.

2003			2004			2005		
Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%
Kolonbia	5.499	44,0	Kolonbia	5.787	37,3	Kolonbia	6.328	32,7
Ekuador	2.407	19,3	Ekuador	3.425	22,1	Ekuador	3.661	18,9
Brasil	1.019	8,2	Bolivia	1.302	8,4	Bolivia	2.988	15,4
Argentina	752	6,0	Brasil	1.184	7,6	Brasil	1.587	8,2
Kuba	617	4,9	Argentina	957	6,2	Argentina	1.129	5,8
Venezuela	420	3,4	Kuba	634	4,1	Venezuela	694	3,6
Bolivia	355	2,8	Venezuela	530	3,4	Kuba	672	3,5
Peru	352	2,8	Peru	427	2,8	Peru	599	3,1
Mexiko	277	2,2	Mexiko	288	1,9	Dominikar Errep.	325	1,7
Dominikar Errep.	267	2,1	Dominikar Errep.	288	1,9	Mexiko	296	1,5
Txile	204	1,6	Txile	222	1,4	Txile	262	1,4
Beste batzuk	328	2,6	Beste batzuk	478	3,1	Beste batzuk	801	4,1
Guztira	12.497	100	Guztira	15.522	100	Guztira	19.342	100

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

6. grafikoa
Nazionalitate nagusien bilakaera EAEn. 2003-2005. Ehunekoak.



Iturria: INEren datuetan oinarritua.

rien kopurua izugarri igo zen, urte hartan EAEko latinoamerikarren %1,9 baino ez baitziren.

3.2. Araba

EAE osoan bezalaxe, Araban ere Kolonbia eta Ekuador dira latinoamerikar nazionalitate nagusiak. Horrela izan da azken hiru urteetan, baina horien kopuruak gora egin duen arren, pisu erlatiboan behera egin dute. Gauza bera gertatzen da Kubako immigranteekin ere. Bestalde, azpimarragarria da Boliviako immigranteen kopuraren igoera, 2003an Araban errolatutako %0,9 herrialde horretakoak baitziren, eta 2005ean, berriz, %2,7.

3.3. Bizkaia

Bizkaian ere Kolonbia eta Ekuador dira bi nazionalitate nagusiak, lurralde historiko horretan errolatutako latinoamerikar guztien kopuruarekiko pisu erlatiboa txikitzen ari den arren. Azpimarragarria da Boliviako immigranteen kopuruaren igoera, haien pisu erlatiboa bost aldiz handiagoa baita: Bizkaian errolatutako latinoamerikarren %2,8 izatetik %15,4 izatera iritsi dira 2005eko urtarrilaren 1ean.

3.4. Gipuzkoa

Gipuzkoan ere garrantzitsuenak bi nazionalitate horiek diren arren, horien kopuruak behera egin du azken urtean. Aitzitik,

6. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa Gipuzkoan, nazionalitatearen arabera. 2003-2005.

2003			2004			2005		
Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%	Nazionalitateak	Kop.	%
Ekuador	1.658	27,8	Ekuador	2.516	32,0	Ekuador	2.740	28,9
Kolonbia	1.399	23,4	Kolonbia	1.539	19,6	Kolonbia	1.762	18,6
Argentina	764	12,8	Argentina	1.041	13,2	Argentina	1.279	13,5
Kuba	461	7,7	Brasil	509	6,5	Brasil	689	7,3
Brasil	383	6,4	Kuba	499	6,3	Kuba	561	5,9
Dominikar Errep.	309	5,2	Dominikar Errep.	356	4,5	Dominikar Errep.	461	4,9
Venezuela	223	3,7	Peru	286	3,6	Peru	370	3,9
Peru	219	3,7	Venezuela	282	3,6	Venezuela	342	3,6
Txile	185	3,1	Txile	231	2,9	Bolivia	326	3,4
Mexiko	169	2,8	Mexiko	210	2,7	Txile	298	3,1
Bolivia	34	0,6	Bolivia	111	1,4	Mexiko	268	2,8
Beste batzuk	165	2,8	Beste batzuk	281	3,6	Beste batzuk	389	4,1
Guztira	5.969	100	Guztira	7.861	100	Guztira	9.485	100

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

7. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa lurralde historikoetan, nazionalitatearen arabera. 2005. urtea.

Nazionalitateak	Guztira	%	2005					
			Lurraldea					
			Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
			Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Kolonia	10.208	100	2.118	20,7	1.762	17,3	6.328	62,0
Ekuador	7.614	100	1.213	15,9	2.740	36,0	3.661	48,1
Bolivia	3.483	100	169	4,9	326	9,4	2.988	85,8
Brasil	3.061	100	785	25,6	689	22,5	1.587	51,8
Argentina	2.827	100	419	14,8	1.279	45,2	1.129	39,9
Kuba	1.496	100	263	17,6	561	37,5	672	44,9
Venezuela	1.242	100	206	16,6	342	27,5	694	55,9
Peru	1.193	100	224	18,8	370	31,0	599	50,2
Dominikar Errepublika	1.025	100	239	23,3	461	45,0	325	31,7
Txile	726	100	166	22,9	298	41,0	262	36,1
Mexiko	637	100	73	11,5	268	42,1	296	46,5
Beste batzuk	1.542	100	352	22,8	389	25,2	801	51,9
Guztira	35.054	100	6.227	17,7	9.485	27,1	19.342	55,2

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

Brasilgo immigranteen bolumenak eta ehunekoak gora egin dute (%7,3). Gainerako lurraldeetan bezala, Gipuzkoan ere Boliviako immigranteen kopuruak gora egin du: Gipuzkoako latinoamerikar immigranteen %0,6 izatetik, %3,4 izatera iritsi dira 2005ean.

3.5. Nazionalitateak eta lurralde historikoak

2005eko urtarrilaren 1eko nazionalitate nagusiak aztertuta, latinoamerikar gehien dituen herrialdea Bizkaia dela ikus daiteke. Izan ere, hor bizi da latinoamerikarren ehunekorik

handiena (%55). Gainera, azpimarragarria da EAEko boliviarraren % 86 eta kolonbiarren %62 herrialde horretan bizi direla. Bertan bizi diren venezuelarren kopurua ere nabarmentzeko modukoa da (%56). Bestalde, Gipuzkoa da argentinaren (%45) eta dominikar (%45) gehien dituen herrialdea. Araban, aipatzeko modukoak dira brasildarren kopurua eta boliviarraren urritasuna.

4. Banaketa sexuaren arabera

Sexuari dagokionez, EAEn bizi diren latinoamerikarren artean emakumeak dira nagusi —guztien %60—, gainerako kontinenteetatik etorritakoen artean ez bezala. Joera hori hiru lurralde historikoetan ageri da —Bizkaia da emakumeen indize handienekoa (%60,6) eta Araba txikienekoa (%58,4)—, eta bere horretan dirau azken urteetan.

Lehen adierazi denez, EAEko latinoamerikar immigranteen ezaugarri nagusia emakumeen indize handia da. Emakumeen ehunekoak aztertzen baditugu, ikusiko dugu nazionalitate-talde guztietan betetzen dela joera hori. Dena den, argentinaren eta txiletarren kasuan indizeak txikiagoak dira: %50 ingurukoak.

Emakumeen indize handienak dituzten nazionalitateak honako hauek dira: Brasil (%74,3), Dominikar Errepublika (%71,6), Bolivia (%66,5), Kuba (%64,1) eta Mexiko (%61,5). Azterketa zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi aurreko panoramika.

8. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2003-2005

	Sexua 2003				Sexua 2004				Sexua 2005			
	Guztira	Gizona		Emakumea	Guztira	Gizona		Emakumea	Guztira	Gizona		Emakumea
		Kopurua	%			Kopurua	%			Kopurua	%	
EAE	22.657	9.002	13.655	60	28.237	11.321	16.916	60	35.054	14.016	21.038	60
Araba	4.191	1.743	2.448	58	4.854	2.000	2.854	59	6.227	2.593	3.634	58
Gipuzkoa	5.969	2.387	3.582	60	7.861	3.169	4.692	60	9.485	3.804	5.681	60
Bizkaia	12.497	4.872	7.625	61	15.522	6.152	9.370	60	19.342	7.619	11.723	61

Iturria: INEren datuetan oinarritua.


9. taula. Latinoamerikar biztanleriaren banaketa, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. 2003-2004.

	Sexua 2003				Sexua 2004			
	Guztira	Gizona		Emakumea	Guztira	Gizona		Emakumea
		Kop.	%			Kop.	%	
Kolonia	8.473	3.212	5.261	62,0	9.044	3.492	5.552	61,4
Ekuador	4.862	2.196	2.666	54,8	7.038	3.162	3.876	55,1
Argentina	1.780	906	874	49,1	2.329	1.164	1.165	50,0
Brasil	2.114	571	1.543	73,0	2.269	583	1.686	74,3
Bolivia	428	145	283	66,1	1.505	504	1.001	66,5
Kuba	1.299	470	829	63,8	1.366	491	875	64,1
Venezuela	763	337	426	55,8	963	432	531	55,1
Peru	659	291	368	55,8	842	381	461	54,8
Dominikar Errepublika	719	202	517	71,9	814	231	583	71,6
Txile	482	247	235	48,8	564	279	285	50,5
Mexiko	492	186	306	62,2	556	214	342	61,5
Beste batzuk	586	239	347	59,2	947	388	559	59,0
Guztira	22.657	9.002	13.655	60,3	28.237	11.321	16.916	59,9

Iturria: INEren datuetan oinarritua.

7. grafikoa

Latinoamerikar biztanleriaren banaketa ehunekotan, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2005. urtea.



Iturria: INEren datuetan oinarritua.